

Bero-beroan

Euskarara itzulitako lehen film pornoa

EUSKALSEX Nazioarteko I. Areto Erotikoa antolatuko da Bilbon uztailaren 20tik 22ra. Han eskainiko da euskarara itzulitako lehen film pornografikoa. Ekimenaren helburua Euskal Herriko industria porno-erotikoa ezagutarazi eta artisten arteko harremana sustatzea da eta esparru horretan euskararen erabilera bultzatzea. Zinema porno-erotikoko berrogei aktore inguru hurbilduko dira La Casillara, horien artean Cicciolina aktore eta diputatu ohi italiarra.

Hik Hasi topaketak

VIII. HIK HASI Udako Topaketa Pedagogikoak uztailaren 3tik 5a bitartean egingo dira Donostian. Aurten hizkuntzarekin lotutako ikastaroak indartuko dituzte. Orotara 31 ikastaro eta bi saio ireki izango dira. 500 irakasle, ikasle eta herritar inguruk hartzen dute parte urtero topaketa hauetan.

UEUren 35. Udako Ikastaroak

UZTAILAREN 2tik 20ra artean izango dira ikastaroak Eibarren, Baionan eta Iruñean. Aurten, Lizarran hitzaldiak izango dira. 30 ikastaro eskainiko dituzte eta matriculatzeko epea irekia dago. Honakoak dira ikastaroetako batzuk: aeronautika, euskal hiria, drogak, sexualitatea, apiterapia, ajax programazioa, Oteiza, feminismoa, audio-filmak, HIESa eta psikomotrizitatea.

Portugaleten Euskara Eguna debekatu du Udalak

EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ-EK maiatzaren 12rako zeukan aurreikusia Euskararen Eguna Portugaleten. Elkarrekin adierazi duenez, Udalak aitzakia teknikoak erabili ditu ekitaldia ez dadin antolatu eta ezkutuko zentsura politikoa erabili du herritarren aldarrikapena isiltzeko.

Manu Monterori eta Dámaso Casadori tiraka

EUSEBIO GOROSPE Eusko Jaurlaritzako langileak Tiraka blogean (<http://tiraka.blogspot.com/>) idatzitako da segidako pasartea: “Aztertu behar duguna da ia zelan den posible, adibide bakar bat jartzearren, EHUKo errektore ohi Manu Monterok edo UGTko idazkari nagusi Dámaso Casadok lasai asko jardun dezakeen derri-gorrezko euskalduntzearen aurka, berak bere ibilbide profesional guztia gaztelaniaz egiteko trabarik izan ez duenean. Aztertu behar duguna da ia zelan entzun dezakegun, asper egin arte, Administrazioan sartzeko nahitaezkoa dela, euskara jakitea lanpostuetatik %45ak baino ez duenean jarrita profila. Eta aztertu behar da nolatan salatu gaitzaketen –denak euskaraz behar duela izan esaka– ondo baino hobeto dakigunean 100 paperetik 0,01 baino ez dela euskaraz sortzen”.

Irakaskuntza publikoa

Bada ondo ez dabilen zerbait Ibarretxeren Gobernuko Hezkuntza Sailean. Egungo arazoak ez badira konpontzen, aste hau eta datorrena oso korapilatsuak izango dira EAEko irakaskuntza publiko ez unibertsitarioan. Azarotik izan dira geldialdiak eta mobilizazioak irakaskuntza publiko ez unibertsitarioan, eta erreklamatzeko duten gauza bakarra ez da soldata, garrantzi gehiagoko kontuak badira eskaeretan; hala nola, irakasle bitartekoentzako lan egonkortasuna, 55 urte baino gehiago dutenentzako lan murriztapena, eta abar. Azaroan hiru geldialdi egin ziren eta aste honetan beste laurako deialdia dute: Gipuzkoan, 15ean; Araban, 16an; Bizkaian, 17an eta hiru lurraldeetan, 24an. CCOO sindikatuaren negoziazio eta mobilizazio jarrera bestelakoa da gaine-

rako sindikatuarekin (ELA, LAB, STE EILAS eta UGT) alderatuz, eta bere kasa 24an bertan lanuztera deitu du. Bestetik, Hezkuntza Sailerako lan egiten duten jangeletako, garbitasuneko, autobus zaindariatako eta hezkuntza bereziko langileek ere, maiatzaren 18rako egin dute lanuzte deialdia. Lan- eta soldata-baldintzen hobetzea eskatzen dute. Abendutik ari dira elkarrizketetan, baina emaitzarik gabe. Egoera hori, bi kasutan, usteltzen utzi da. Eta orain, ondorioak datoz: geldialdiak eta lanuzteak, horiek ikasleengan duten eraginarekin. Jarrera arduratsua beharrezkoa da alde guztiengan, behar bezalako adostasuna ahalik eta azkarren lortzeko. Autoritatea ezartzea negargarria litzateke.

Juan Mari Arregi

BAHEA

www.gipuzkoaeuskara.net-en
Iñaki Arruti Lasarte-Oriako Udaleko euskara teknikariak esanak: “(...) euskararen erabilera normalizatzea helburu izanik ere, eragin behar al da harreman-sare informal horietan? Eta, baiezko-tan, nork? nola?
 Katalunian ere, beste toki gehienetan bezalatsu, oinutsik ibiliko dira zakurrak, baina gai hau eztabaidagai behintzat badarabilte. 2001ean egin zituzten Jornades d'Estudi sobre l'Ús Interpersonal Bartzelonan (...).

Ni gai hori arakatu beharra daukagula pentsatzen dugunotakoa naiz. Ez ‘inoren etxean sartzeko asmoa dudalako’, baina bai harreman-sare informaletako hizkuntza-ohiturak aldatu ‘nahi dituzten pertsonen nola egin dezaketen’ eskaintzeko modua prestatuta eduki behar dugula pentsatzen dudalako. Norbait jardunaldi batzuk antolatzeko asmotan baldin badabil eta gaia falta baldin badu, bat badu”.

Labankadak, judizialak eta alderdietakoak

HAUTESKUNDE GUNE guztiak dira berebizikoak udal eta foru hauteskunde batzuetan, hori da hautaketa molde honen ezaugarri nagusia, gertukoak du garrantzia. Hala ere, oraingo hautan badira denon arreta erakartzen duten gune bereziagoak eta horietan lehen Nafarroako Legebiltzarrarena seguruenik. ANVk parte hartu izan balu, UPNk eta CDNk ez zuketean gehiago osorik lortuko, hori seguru. ANV erditik kenduta, UPN-CDN gehiago osorik gertu izan daitezke. Inkestak ere halako zerbait hasi dira islatzen.

Edozein modutan, erabakigarria izan daitekeen beste eragile bat partehartzearen maila da: 2003ko hauteskundeetan abstentzioa ia %28koa izan zen –foru hauteskunde guztietako ia txikienetakoa– eta pentsatzekoa da egungo giroan txikiagoa izango dela. Nora joko du multzo horrek? Ikusi beharko da dagoen berrikuntza handienak, NaBaik, duen tiradizoa.

Eta ikusi beharko den beste faktore erabakigarria, ANVko balizko boto emailearen jarrera da, oso posible baita gizarte sektore horretako ehuneko batek Legebiltzarrerako botoa NaBaira desbideratzea. Udalerako ANVren legezko zerrendak lortzen duena eta Legebiltzarrerako izan daitezkeen ANVren boto 'baliogabeen' arteko aldeak eman diezaguke klabe horren erantzuna.

PERNANDO BARRENAK egindako eskaeraren ondorioak zeintzuk izango diren garbi egon ez arren, Espainiako fiskaltza nagusiaren lehen ondorioa eskaerari beroarenak kentzea izanda, Barrenak eta Batasunako kideek eskubide zibil guztien jabe direla adieraziz eta, beraz, botoa eskatzeko aukera ere badutela. Iñaki de Juanaren auzian Lopez Agilar ministro sozialista zenak berak jarri zuen langa oso goian –“behar diren frogak eraikiko ditugu...”– eta larrutik ari da ordaintzen jarrera hori gaur egun ere. PPrekiko gogortasun leian, ANVren honetan ere, Candido Pulpido fiskalaren jarrera masokista agerikoa izan da: Batasunak ANVrentzako botoa eskatzea nahikoa izan zitekeen honen ilegalizazioa eskatzeko. Eta Barrenak, ezker abertzalearen izenean, berriz ere heldu egin dio erronkari. Eta, jakina, eskubideari.

LABANKADENA ere hauteskundeetan agerian geratzen den mugimenduetakoa da, bai zerrenda osaketetan, bai hautagaitza desberdinen inguruan eratzen diren albisteetan. Gipuzkoako EAJn ageri dira nabarmenen laban kontuak, lehenbizi Jon Jauregiren auziarekin eta orain Irungo Ogasunaren afera-rekin, sakonean, Luis Mari Bandres jeltzale esanguratsuen bidez, berriz ere Joseba Egibarren lerroa jipoitu nahi dela irudikatzen baita.

Baina jeltzaleen barne borrokez gain, gizartean enpresa munduarekiko zerga bilketan dagoen kontrol eza eta eskuzabaltasunari buruzko susmo asko berresten dituzte auzi hauek.

EPAIKETA IZANGO DA Egunkaria auzian, Entzutegi Nazionalako 1. zigor Salak hala erabaki du. Miguel Angel Carballo fiskalak epaiketa ez egiteko eskaerari muzin egin diote epaileek eta AVTk eta Dignidad y Justiciak egindako eskaera ontzat eman. Abenduan eskatu zuen fiskaltzak auzia ixtea eta, beraz, epaiketa ez egitea: esparru politiko osoak interpretatu zuen hura Espainiako Gobernuak bake prozesuaren inguruan egindako mugimendu gisa. Eta hau ere interpreta daiteke zentzu berean, egoera oso bestelakoa da eta, beraz, erabaki judizialak ere bai. Baina azalpen primario eta oinarrikoagoa ere izan daiteke: Estatuaren egitura guztiak hainbeste zikindu eta orain epaiketarik ere ez?

Euskal Herrian injustizia oso nabarmena moduan jo den auzi honen kontrako beste baldarkeria bat gehiago da erabaki hau, baina egia da ikuspegi juridiko batetik epaiketara fiskalaren jarrera honekin joatea ere oso bestelakoa izan daitekeela. Ez da ezeren berme, baina bai aldeko.



**Konfiantza
delako
garrantzitsuena**

Egunez egun
zure konfiantza
geureganatzen dugu,
etengabe produktu
berriak eta
zerbitzu berriak
bitartezaren bidez.

**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 4 - 20064 DONOSTIA
e-posta: zinkunegi@euskainet.net
TEL: 943 420 624

G A R R A N T I A